

BERTARATUTAKO ZINEGOTZIAK

LORENZO ZUBILLAGA GOICOECHEA
MARIA CRISTINA VAL SARDÓN
AITZIBER OTAMENDI ECHARRI
NEREA YEREGUI BALDA
IGOR OTERMIN EGUIA

BERTARATU EZ DIRENAK

ANDER PRADOS OTAMENDI
IÑAKI ELIZALDE ZUBILLAGA

IDAZKARIA

Joanes Aleman Olo

Betelun, udaletxeko bilkura gelan, 2026ko otsailaren 24an arratsaldeko zazpiak eta erdi direnean, Lorenzo Zubillaga Goicoechearen jaunaren lehendakaritzapean eta egintzaren fede ematen duen Joanes Aleman Olo idazkariak lagundurik ondoan aipaturiko zinegotziak elkartu dira.

Udal bilkura dagokion deialdiaren ondoren egin da, erreglamentuan ageri den aurrerapenarekin eta deialdia beraren eta gai zerrendaren ale bat udaletxeko iragarki oholean iragarri ondotik.

Ohiko izaera duen bilkura irekirik eta lehendakaritzak publikoa dela esanik; Idazkariak bilkura hasteko behar den zinegotzi kopurua bertaratu dela egiaztaturik; gai zerrendan diren ondoko puntuak aztertzeari ekin zaio.

1. 2026-01-27KO UDAL BILKURAKO AKTAREN ONARPENA

Deialdiarekin batera banatu den 2026-01-27ko bilkurako aktaren inguruan udalbatzako kideren batek zerbait esateko duen galdetu du lehendakariak.

Zinegotzi bakar batek ere ez du deus adierazi.

Lehendakariak akta bozkatzera ekarri eta udalbatzak aho batez onartu du.

2. ALKATEAK EMANDAKO EBAZPENAK:

1. Gainbalio likidazioa

Beteluko Udaleko alkateak, Lorenzo Zubillaga Goicoecheak, 2026ko urtarrilaren 26an, 6/2026 Ebazpena onartu zuen. Gaia: Hiri Lurren Balio Gehikuntzaren gaineko zergari buruzko 2/2026, 3/2026 eta 4/2026 espediente zenbakietako likidazioak onartzea.

2.- Gainbalio likidazioa

Beteluko Udaleko alkateak, Lorenzo Zubillaga Goicoecheak, 2026ko urtarrilaren 26an, 7/2026 Ebazpena onartu zuen. Gaia: Hiri Lurren Balio

Gehikuntzaren gaineko zergari buruzko 4/2026 espediente zenbakiko subjektu pasivo baten likidazioa onartzea.

3. Martin Ochotorena

Beteluko Udaleko alkateak, Lorenzo Zubillaga Goicoecheak, 2026ko urtarrilaren 27an, 8/2026 Ebazpena onartu zuen. Gaia: Beteluko 1. Poligonoko 5. Eta 6. Lursailean dauden pixatokia eta siloa autoen aparkaleku izateko egindako lanak legezatzeko hirigintza baimena ematea.

4. Ordainketa agindua

Beteluko Udaleko alkateak, Lorenzo Zubillaga Goicoecheak, 2026ko otsailaren 5ean, 9/2026 Ebazpena onartu zuen. Gaia: 2026ko urtarrilaren 27an egindako osoko bilkuran onartu ziren fakturak ordaintzeko agindua ematea eta batzar horretan onartutako akordioetatik eratorritako betebeharrak ekonomikoak ordaintzeko agindua ematea.

5. Telefonikako postea

Beteluko Udaleko alkateak, Lorenzo Zubillaga Goicoecheak, 2026ko otsailaren 18an, 10/2026 Ebazpena onartu zuen. Gaia: Gaur egun Beteluko 2. Poligonoko 51. Lursailean dagoen postea kale publikoan jartzeko baimenik ez ematea oso kale estua baita eta jartzen bada, arriskuak sortuko direlako.

3. NA-10.019 EHIZA BARRUTIA

Indarrean den Ehiza barrutia 2025-2026. denboraldian bukatuko da eta ikusita Gaintzako, Intzako eta Uztegiko Kontzejuek eta Beteluko Udalak beste gauza batzuen artean haien terminoetako parte diren lurretan tokiko ehiza barrutia osatzeko eta haien ordezkari modura Beteluko Udala barrutiko titular izendatzeko hartutako akordioa, Beteluko Udaltzaren honakoa onartu du:

1.- Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuari tokiko ehiza-barruti bat eratzeko eskatzea, mugarte hauetako lurrak barne hartuko dituen:

Betelu, Gaintza, Intza eta Uztegiko mugarteko lurrak.

2.- Lurrak isilbidez lagako dira ehiza barrutia eratzeko proiektuaren iragarkia argitaratuz Nafarroako Aldizkari Ofizialean eta toki-entitateak ohikoak dituen komunikabideetan. :

3.- Barrutian parte hartzen duten toki-entitateen ordezkari gisa, honako hau izendatzen da barrutiaren titular: Toki-entitatea: Beteluko Udala IFZa: P3105500G Helbidea (kalea, zenbakia, solairua): Antigua kalea 5 Herria: Betelu Posta-kodea: 31890 Telefonoa: 948513011 Jakinarazpenetarako helbide elektronikoa: udala@betelu.eus

4.- Aipatutako barruti hori 10 ehiza-denboralditarako ezartzea; azken denboraldia 2035/2036 denboraldia izanen da.

5.- Aprobetxamendua adjudikatzeko prozedura honako hau izatea: Zuzeneko adjudikazioa legez eraturiko ehiztarien tokiko elkarteari, Asociación de Cazadores Deportivos Malloperi hain zuzen ere.

6.- Barrutiko ehiza-aprobetxamendua adjudikatzeko baldintzak onestea.

Alkateak akordioa bozkatzera ekarri du eta aho batez onartua izan da.

4. JASOTAKO IDATZIAK

1.- Jaime Arbeloa;

Jaime Arbeloak Betelun grabatuko den "Betirako" laburmetraierako laguntza eskaera egin du. Honen aurrean aho batez zera onartu da:

Laburmetraiaren grabaketarako 250 euroko dirulaguntza ematea eta behar duten materiala utziko zaie, hala nola, 4 mahai, karpa bat eta aulkiak.

2.- Lorenzo Otamendi

Lorenzo Otamendi taxilariak larunbatetako Tolosarako bidaia bakoitza 50 euroan (BEZ barne) ordaintzea proposatu dio Beteluko Udalari. Orain artean 40 euroan egiten ditu. Honen aurrean, udalbatzak, aho batez, ZERA ONARTU DU:

Egindako proposamena onartzea.

5. FAKTUREN ONESPENA

	KONTZEPTUA	ZENBATEKOA
Amazon	F. pasta lavamanos (visa)	15,90 €
Amazon	F. colgadores (visa)	11,75 €
Vodafone	F. urtarrileko kontsumoa	210,04 €
Euskaraz koop S	F. 2025/B/1101	847 €
Venus Campos Walsh	F. DFA 52	2.833,41 €
Correos	F. gutun zertifikatuak	34,95 €
Lyreco	F. tones	99,74 €
Plazaola partzuergoa	F. 2026/11	2.144,74 €
Codisna	F. 26.022	239,58 €
Codisna	F. 26.023	2.293,11 €
Wikai	F. 1/39	112,10 €

IDM Medical	F. 168	133,95 €
Angelines Carrillo	F. A1/2026	90 €
Iberdrola	F. urberoa	8,14 €
Cederna	F. lehenengo kuota	2.119,05 €
Correos	F. gutunak	6,99 €
Miel Ramon Olano	F. 3/2026	157,30 €
Miel Ramon Olano	F. 4/2026	94,38 €
Iberdrola	F. argiztapen publikoa urtarrila	934,19 €
Iberdrola	F. udaleko pisua urtarrila	12,40 €
Goiener	F. udaletxeako argia urtarrila	1.489,72 €
Goiener	F. eskolako argia urtarrila	1.053,24 €
Iberdrola	F. argiztapen publikoa	41,87 €
Navadat	F.A/6584	1.041,66 €
Animsa	F. SCA 77	1.333,54 €
Ascensores Arga	F. 2026-01-R-35607	67,76 €
Amazon	F. ES60006GKV2FLS (visa)	13,30 €
Vizcaino de petróleos	F. eskolako gasoila	3.081,87 €
Ofico	F. F260802	168,19 €
SORGINTXO HAUR ESKOLAKO LEHEN ZIKLOA		
Seikide	F. urtarrileko Aholkularitza	214,17 €
Angelines Carrillo Ruiz	F. A2/2026	53,09 €
Eroski	F. janariak (kutxatik)	32,59 €
Maite harategia	F. A1/11	880,10 €
	DENETARA:	21.869,82 €

Lehendakariak fakturak bozkatzera ekarri eta udalbatzan diren kide guztiek aho batez onartu egin dituzte.

6. GALDERAK ETA ESKAERAK

Ez da ez galdera ez eta eskaerarik egin.

Arratsaldeko bederatzia laurden gutxi direnean, bilkura amaitu eta altxatu egin da, idazkaria naizen honek ziurtatzen dudana.